

BERRIGARA


11. zenbakia

Jardun elkartea, Bergara

1991, martxoak 1



Harremanak
euskaraz Udalarekin
(Koademillo berzia)



Maskaradak:
hiru hilabetez
Zuberoan



Azoka Plaza:
1992rako
Santa Marinaran

Armando Gallastegi



SAN ANDRES AUTOMOBILAK



ROVER 200 SERIEA, 16 BALBULA ETA

1.785.000 PZTATIK AURRERA

Araba Etorbidea 13, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 79 95 22 / 79 53 98





GAMAK

INFORMATIKA GAUZAK

✓ **“Novell”** sarea beste sistema batzurekin batera erabil daiteke, bai inprimagailu baliotsuekin, ahalmen haundiko diskoekin, eta baita beste sistema berezi batzurekin ere, adibidez fax, modem eta halako komunikabide sistemekin.

✓ **“Novell”** sareak daukan posta zerbitzu elektronikoaren eta lojikalaren bidez lan taldeko partaideen arteko komunikazioa lor daiteke.

✓ Enpresak negozioerako erabiltzen dituen teknikak aldatzeko ere lagungarri izango da **“Novell”** sarea. Eta hainbeste denbora galdu erazten duten bilera mordoak eta informazio-bide geldoak ere ebitatu ahal izango lirateke lojikalak erabiliz.

ARTZAMENDI 1

Tfnoa: 76 56 85, Faxa: 76 55 97

BERGARA

BERRIGARA

Argitaratzaileak:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570 Bergara
Tfnoa: 760397

Laguntzaileak: Bergarako Udala

Zuzendaria:

Miguel Angel Elkoroberezar

Erredakzioak: Jon Andueza

Maketazioak:

Edume Arenaza. Jon Andueza

Publizitate eta harpidetzak:

Ignazio Irigoien. Edume Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua: Jose Angel

Mikeo, Estepan Plazaola eta Juan
Marin Elxepuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.

Urzelai, Mariipi Laskurain, Silvia Sanz,
Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi, Mikel
Elkoroberezar, Josune Iñarra eta
Xabier Aranburu, Aitziber Aretxaga
eta Ainhoa Bikufia

Argazki laborategiak: I. G. Landa, A.

Gallastegi, B. Cantero, M. Leturia, K.
Retolaza, J.A. Eguren, J.I. Millan, J.
Aguayo, R. Vicente, J. Tabares, J. A.
Jauregi eta Kifitu

Komikia eta marrazkiak: Josu Okina

eta Antonio Arrillaga

Inprimetegiak:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Ofitzi)

Beneaketa arduradunak:

Txantxangorri Taldea

Copyright:

BERRIGARA

Tirada: 2.000 ale

Lege gordailua: SS 50/ 91

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta eri-
tzien erantzunkizunik.



1 OSTIRALA

• **Zinea:** "Linea Mortal",
10.30etan.

• **Tren museoa:** Igandera
arte aurkituko duzue zabalik
Kultur Etxean Valentziako
Llopiis familiak muntatutako
ferrokarrilen historiari bu-
ruzko erakusketa.

• **Kontzertuak:**

- Eskoriatzako frontoian *Pi-
perrak, E.H. Sukarra* eta
Malaña taldeak, 10.30etan
hasita.

- Aretxabaletako Gaztetxean
Sociedad Alcoholicak taldea.

• **Goardiako farmazia:**
Mozos, San Pedron.

2 LARUNBATA

• **Zinea:** Setan "Walt Dis-
ney"; eta 7.30etan eta
10.30etan "Linea Mortal".

• **Pilota partiduak:** Fronto-
ian, 4.30etan hasita, honako
neurketa hauek ikusteko au-
kera: *Arteaga-Berna / An-
sotegi-Urra; Bengoetxea
IV-Aldazabal II / Alustiza-
Etxenagusia*; eta emanal-
diarekin bukatzeko, *Herran-
Andueza VI / Loiarde-Un-*

sain..

• **Futbitoak:** Kiroldegian,
goizeko 9etan hasita, kuadri-
la arteko txapelketako parti-
duak.

• **Kontzertuak:**

- Bergarako Gaztetxean,
11etan, *Kalean* eta *Spok*.

- Arrasateko Amaia antzo-
kian, Anje Duhalde, 10etan.
- Aretxabaletako Gaztetxean,
10.30etan, *Azurbaltzak* eta
Rare taldeak.

• **Goardiako farmazia:**
Camacho, Bidekurutzetan.

3 IGANDEA

• **Zinea:** "Linea Mortal",
5etan, 7.30etan eta 10.15etan.

• **Futbitoak:** Kiroldegian,
goizeko 9etan hasita, kuadri-
la arteko txapelketako parti-
duak.

• **Kontzertuak:**

- Arrasateko Kiroldegian,
7etan, *Mano Negra* eta *He-
riotza* taldeak.

- Txibiston, 7etan, *Sisters of
Mercy*.

• **Dantzaldia:** 6.30etan, pla-
zan, *Ibaiak* taldearekin dan-
tzaldia.

• **Goardiako farmazia:**
Camacho, Bidekurutzetan.

4 ASTELEHENA

• **Zinea:** "Linea Mortal",
7.30etan.

• **Hitzaldia:** 4.30etan, Kultur
Etxean, *Emakumea eta Osa-*

suna gaiari buruzko hitzaldia.

• **Goardiako farmazia:**
Puy, Barrenkalen.

5 ASTEARTEA

• **Goardiako farmazia:**
Guallar, San Antonion.

6 ASTEAZKENA

• **Goardiako farmazia:**
Estella, Matxiategin.

7 OSTEGUNA

• **Goardiako farmazia:**
Mozos, San Pedron.

Aukeran...

Kontzertuak:
Jende ugari
hurbilduko da egun
hauetan inguru
hauetara, gusto
guztietako
emanaldiak eskaini
asmoz. Izenak
aipatzeakotan, *Mano
Negra* larunbatean
Arrasaten, *Sisters of
Mercy* igandean
Txibiston.

KIZKUR



ILEAPAINDEGIA

Bolu 51 Tfnoa: 76 50 32 BERGARA

LAKET

Gizon eta gazteentzako
JANTZIDENDA
Irizar Ibilbidea 3



Tfnoa: 76 25 99

IRAURGI

. Ateak . Leihoak
. Zoruak

Kruz Gallastegi 7 Tfnoa: 76 03 96
BERGARA

HURBIL

Sendagile Naturista
eta Masajista

T. Aranzadi 2, Tfnoa: 76 30 08 BERGARA

ALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILEA
SUKALDERAKO ALTZARIAK

BOLU 24 Tfnoa: 76 30 57
BERGARA

Aldoka Maldoka

Taberna

KRUZ GALLASTEGI
BERGARA



SAN ANTONIOKO SEMAFOROA

San Antonioko bidekurutzea ez dala oso «santua» gauza jakina da, baina orain azaltzea nahi dudan problemak konponbide erraza duela uste dut. Antzuolatik Bergarara gatozela semaforoa daukagu eskuman eta bide erdiaren gainean, baina gauza harri-garria da ez bata eta ez bestea ezin direla ikusi gabez, atzekaldean ditzuten argi-fokoak direla medio. Nere ustez semaforoak nabarmendu egin behar dira, plaka beltz bat ipiniz bueltan adibidez, edo, bestela, atzeko

fokoak ahal den moduan ezkutatu beharko lirateke.

Konponbidea nahiko erraza dela uste dut eta kostu gutxiko gainera; ia erabakia hartzea ere hain erraza egiten den.

I. Kortabarria

ASZENSORIA BAGEUNKA BEHINTZAT

Pare bat hitz nahikoak dira esan behar dudana zuen erreibistaren txokoren baten jartzeko. Begira, honezkero, badira makina bat urte gainean daukadanak eta, hankak ez ditut trote askotarako, eta zera, teatorra joatea izugarri gustatzen zait, baina eskailera gehiegi dira Mariaren Lagundiakoak neure hanka motelentzako. Beste toki aproposagorik topa al daiteke Bergaran? Irala edo? Galdera bat besterik ez da, bestela aszensoria.

J.A. Larrañaga



• ERITETXEAK

Osasun etxea 76 10 82
Larrialdiak 76 12 94
Arrasateko ospitalea 79 53 00

• GURUTZE GORRIA

Bergara 76 55 76

• DYA

Antzuola 76 62 91

• ANBULANTZIAK

Bergaran 76 13 59
Gipuzkoako anbulan. 45 87 44

• SUHILTZAILEAK

Zubillagan 78 28 00

• POLIZIA

Udaltzaingoa 76 14 69
Ertzaintza 76 53 40

• GARRAIOAK

P.E.S.A. 76 16 46
Taxiak 76 19 50


• HIRUGARREN ADINA

Mizpirualde 76 13 68
Aitonak 76 21 40

• BESTELAKO ZERBITZUAK

Udaletxea 76 39 42
Epaitegia 76 14 72
Kiroldegia 76 56 41
Igerilekuak 76 20 51
Kultur Etxea 76 44 46
IMI 76 55 49

Komikia



Josu Okina

Txinpartak

☐ Zuhaitz eguna

Martxoaren 4tik 9ra bitartean, ikastetxeetako hurrek 500 zuhaitz landatuko dituzte Elosu, Ugarrixa eta *La Vergaresa* inguruetan.

☐ Kontzertua Gaztetxean

Larunbatean, gaueko 11etan hasita, *kalean* eta bergarako *Spock* taldeen emanaldia izango dugu Gaztetxean.

☐ Joku aretoa


Badirudi pasa den astean Mariaren Lagundiako neska-mutilek luzatutako eskariak laister jasoko duela erantzuna. Ganbara taberna ondoko lokalean, festetan Gestoren taberna jarri izan den tokian, joku areto edo sala-juegosa egiten ari dira.

☐ Imanol Bolinaga senadorea

Joan den astean, Euskal Autonomi Elkarteke Legebiltzarrak Madrileko Senaturako ordezkari izendatu zuen Imanol Bolinaga..

☐ Txomin Pineda Golkotik bueltan

Numancia itsasontzian hilabete batzuk Golko Pertsikoan eman ondoren, otsailaren 20an etorri zen Txomin Bergarara bueltan. Martxoaren 11n itzuli beharko da soldaduzka bukatzera, hilabete t'erdi bete behar bait du oraindik.



✓ Azkenean, azoka aurrera

Joan den asteleheneko Osoko Bilkuran, Udalak 215 milioi pzt.a.ko aurrekontua onartu zuen Santa Marinan eraikiko den azoka plazaren obrak hasteko.

Kopuru hori bi urtetan emango da. Aurten 80 milioi pzt.a.rekin ekingo zaie lanei, eta gainontzeko dirua 1992an jarriko da egitasmoa bukatzeko.

Obrak adjudikatzeko oinarriak ere onartu ziren astelehenean. Laister batean zabalduko da, beraz, lanak egin nahi dituzten enpresentzako deialdia.

Gogoratu, hogeitazortzi postuko Azoka plaza eraikitzeaz aparte, Santa Marina ingurunean frontoia, probalekua, lorategia eta bi solairu izango dituen lurrazpiko aparkalekuak egingo direla.

Urteak iraun duen eztabaida dugu azokarena; astelehenean ere alderdi guztiak ez ziren ados jarri. HB eta EAren baiezkotuekin egingo du proiektuak dagoenetan aurrera.

Pil-pileko mahaingurua joan den asteartean

Zer dakigu Golkoko gerraz lemapean, mahainguru interesgarria suertatu zen asteartean *Jardun* Elkarteak antolatutakoa. *Joxean Lizarribar* industri gizona eta *Felipe Etxeberria* kazetaria izan genituen mahaikide, moderatzaile moduan *Juan Luis Bikuña* egon zelarrik. Entzundakoaren konklusio gisa, zera aipatu behar: benetan zaila dela europear, eta orokorrean Mendebaldeko pertsonontzat inguru haietako jendeen pentsamoldea ulertzea.

Interesgarria bai, baina hogeitazortzi lagun inguru hurbildu ziren soilik Kultur Etxera. Hurrengoan kopurua igoko ote!



ARREGI
Eraikuntza
materialeak

Bildegia Teilerian Tfnoa: 76 27 93
Labegaraieta Auzoa

Nahikari

Mahasterreka. 20
Teléfono, 76 57 71
20570 BERGARA

EXUKUN
BEREZITASUNAK

Fraiskozuri 6, Tfnoa: 76 51 62
BERGARA

Sisters of Mercy, igandean, 7etan



✓ Txibistoko kontzertuak

Ezin ukatu Txibisto dantzalekua indar-berrituta ageri zaigula azken boladan. Urtarrilean *Hertzainak* taldea hurbildu bazen zuzeneko LPa grabatzera, joan den asteburuan 2.500 lagun inguru elkartu ziren Iruñeko *Barricada* taldearen kontzertuan.

Bi ordu iraun zuen emanaldiak. Soinu ezin hobez, Txantreakoek kaleratuta dauzkaten zazpi LPen errepasu zabala eskaini zuten, laister Londresen grabatuko dituzten bostpasei abesti aurreratzeaz gain. Ikuskizun borobila, ona.

Txibistokoek aurrera segitzen dute programazioarekin, ordea, eta igande honetan, arratsaldeko 7etan *Sisters of Mercy* taldearen txanda izango dugu. Britainiarrak dira eta *psicodelia siniestra* delakoaren bidetik jotzen dute. 1.800 pzta. ordaindu beharko da sarreran.

Hasi berria dugun martxorako, gainera, goi-mailako beste bi ikuskizun iragarri dituzte. 17an, hain zuzen, *Ramones* taldea etorriko da Txibistora. Eta 23an, berriz, *Los Suaves* ikusteko aukera izango dugu.

Argi dago. Gusto guztiak asetzeko baina talde ari dira pasatzen Bergaratik!

□ Erakusketa

Martxoaren 7an hasi, eta 17ra arte luzatuko da Kultur Etxean J. Ramon Gantxegi eta Xabier de Zerioeren erakusketa. J. Ramonek Pintura lantzen du, eta Xabierrek, aldiz, eskulturaren mundua.

□ Jon A. Osinalde

30 urteko gazte bergarra, Malaga aldean gertatutako kotxe istripuan hil zen joan den larunbatean.

□ Mendi irteera

Pol-Poleko gazteek mendi irteera antolatu dute igande honetarako. 8.30etan irtengo dira Beheko Estaziñotik, Untzillaitz-en eguna pasatu asmoz.

□ Hiru atxilotu aske

Guk joan den asteko zenbakia kaleratu orduko, Bergaran bueltan zeuden Luis Rodriguez, Bittor Oregi eta Bittore Aierbe. Epailak aske utzi zituen.

Maria Eugenia Gracia, Maite Guridi eta Pedro Belastegi, berriz, espetxera eramán zituzten.

□ Sutea

San Juan erreka Amatiño baserrian zorigaiztoko sutea izan zuten asteazken arratsaldean.

Ganbara eta ikuilua erre zitzairen baina bizitza aldeak ez zuten kalterik izan, Zubillagako suhiltzaileen lanari esker.

□ Ikastaroa

Gamak-ek antolatuta, astelohenean bertan hasiko da automata programablei buruzko ikastaroa. Interesatuek, deitu 76 56 85 tfno.ra.

□ Hitzaldia

Astelohenean, 4.30etan, *Emakumea eta Osasuna* lemapean hitzaldia antolatuko da Kultur Etxean.

□ Frontol berria

Ez dira asko Bergaran pilotalekurik ez duten auzoak eta laister bat gutxiago izango da, dagoeneko Artzamendi eraikuntza enpresa hasi da eta, Elorregiko frontoia eraikitzen.

P. MANSO

Optika

OPTIKOA, OPTOMETRISTA

IRIZAR IBELEBIDEA 7 Tfnoa: 76 27 86 BERGARA

ZARZUO



SAN JUAN

BERGARA

Beheko
Taberna

Menestra eta konejoa
dira gure berezitasunak

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

YAZKI

UME

Irizar 3

Tfnoa: 76 16 54

GAZTE

Ibargarai 8

Tfnoa: 76 54 73

BOLINTXO

Kirola egiteko
behar den
guztia

Ibargarai 10, Tfnoa: 76 38 32
BERGARA

Javier Urizar

edo TAVEX Taldearen etorkizuna Marruekoson

Javier Urizar Elorrixon jalo zen duela hogeitamar urte. TAVEX taldeak, Marruekoson ireki berri den lantegiaren Zuzendaria izendatu du.

Afrika iparraldera irten balno ordu batzuk lehenago berarekin elkartu ginen, 5.000 milioi pza.ko kostua suposatu duen egitasmoari buruz jardun asmoz.

TAVEX Taldeak apustu gogorra egin du Marruekos aldean. 5.000 milioi pza.ko gastuaz, 30.000 m² ko lantegi berria jarri du martxan Settaten (Rabat eta Marrakech artean). Taldearen zortzigarren planta izango den honetan 240 langile arituko dira.

Zergatik Marruecos, Javier?


"Orain dela urte ta piku

erabaki genuen Marruekoson planta bat zabaltzea, talde bezala garrantzitsua iruditu zitzaigulako bertan gure presentzia indartzea. Zergatik? Europako konfeksionista gehienak, moda egiten dabilen jendea, frantsesak, italiarrak, etab. hara joan direlako lanera. Eurentzat klabea da eskulanaren kostua, jantzi bat egiten dutenean ehuneko lau rogeitabosta horretan gastatzen dutelako, eskulanean. Marruekoson oso merkea da, eta hori aprobetxatzen dute. Han egiten da moda, eta gero ekarri Ekonomi Elkartek Marruekosekin sinatuta dauzkan akordio berezi batzuren bidez ekartzen da Europara".

Zuek ez zarete eskulan merkearen bila joan?

"Guretzat eskulana ez da hain garrantzitsua. Eurak han daudelako joan gara batez ere. Planta berria oso teknologizatua dago, eta orduan, eskulanaren kontuak bakarrik ez liguke konpentsatuko.

Kompentsatzen duena zera



da: Marruecoson daukagun merkatua oso haundia dela. Ikaragarri babestua dago, ordea. Ez da posible telak hemen egin eta konfeksionistei hara bidaltzea, hau da, ezin gara hara exportatzen ibili, aranzela % 80koa izatera iristen delako, eta horrek bikoiztu egiten duelako guk jarri behar dugun prezioa. Bertan egin behar da produktua, gero konfeksionistei produktu marrokiar bezala saltzeko; horrela aranzelaren traba kentzen dugu gainera, merkeago saldu dezakegu, eta ondorioz moda-gizonen errazago erosten dute".

Zu itzuli berria zara lur haieratik. Zer egoera bizi da gaur egun? Igerri al da Gol-

koko gatazkaren ondorio-rik?

"Eguneroko bizitza ez da gehiegi aldatu. Marruekosoko ekonomia, eta neurri haundi batean gizartea ere Europara begira bizi dira. Frantziarekin, adibidez, lotura haundia dute. Nahiz eta arabeak izan, egia esan Golkoko gatazkak ez du bizimodua gehiegi aldatu; neri hala iruditu zait behintzat!

Taldeak, beraz, itsaropentsu egiten dio aurre etorkizunari...

"Noski. Pausu hau eman dugu, beharrezkoa ikusten genuelako. Prespektibak oso onak dira, merkatu zabala dugu han, eta nik uste proiektu baikorra izango dela TAVEX taldearentzat".



KORTA-ZAR

Txokolategia

Pintxo eta ogibartekoan espezialitatea

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 62

CAMACHO

- * DROGERIA
- * USAINDEGIA

BIDEKURUTZETA 24
BERGARA. Tfnoa: 761335

IBARGUREN PENTSUAK

" BIONA " PENTSUEN BILTEGIA, " BIOTER " PRODUKTOAK ETA HAZIAK

SAN PEDRO 3, Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

ONENA

TINDATEGIA

Barrenkale 29 BERGARA

Zuberoako Maskaradak

Errege egunean hasita ia Garizuma amaitu arte ikusgai izango dira aurten Zuberoako Maskaradak. Igande honetan, martxoak 3, Larrainen emango dira, 10ean Ligin, eta 17an, Lakarrin, azkena. Oinflatiko "Laixan" elkarteko autobusak eta Bergarako Mariaren Lagundikoak Atarratzen trink egin zuten otsailaren 3an. Ikusgarria benetan!

Euskal Herriko Ihaute-rietako jai eta ospakizunen artean Zuberoako herrietan ia urtero egiten diren Maskaradak dira ikusgarrienak, agian. Aintzina-aintzinatik datorkigun ikuskizun honen jatorriari buruzko teoria ugari egon arren, ikerlariak ez dagoz bat maskaraden esannahia interpretatzeko orduan: batzuentzat Erdi Aroko euskal gizartea isladatzen dute; beste batzuen eritziz herritarren eta kanpotarren arteko burrukak eta gatazkak dira maskaradetan azaltzen zaizkigunak; hurrengoak, berriz, esangura magiko-soziala aurkitzen die Karnabaletako festa hauei; bada Greziako dantza zaharrek antza eta kideasuna dutela esaten duenik. Dena den, azkar asko igartzen zaie aspaldiko kutsua dariela dantza, kanta, doinu, imintzio eta antzekizunez osatutako ikuskizun hauei.

Gaurregun herri edo bailada bateko gazteek antolatzen dituzte maskaradak.

Negu partean, Gabon ostean, ekiten diete emanaldiei: lehenengoa euren jaioterrian eta ondoren inguruko hainbat tokitan. Aurten Altzai eta Lakarrikoak ditugu lanbide honetan sartu direnak, baina prestatze-lanetan Ibar-Es-



küin izeneko bailada osoak hartu omen du parte, hau da, aipaturiko bi herriez gain, haran eder honetan diren beste auzo eta herriskak ere bai: Sarrikota-gafia, Arhane, Altzabeheti eta Zunharreta, alegia. Errege egunean eman zuten lehendabizikoz, Altzain, eta hurrengo igandetan zehar Urdiñarbe, Alzürükü, Barkoxe, Atharratze, Eskiula, Müskildi, Larrainen etab. aritu edo aritzekotan dira. Herri guztiak Zuberoakoak dira, noski, eta gehienak inguru batekoak.



Emankizun guztian zehar bi talde bereizten dira nabarmen: **Gorriak** alde batetik, eta **Beltzak** bestetik. Lehenengoak pertsonai dotore eta prestuak ditugu, oso ondo dakite dantzan, ez dute hitz egiten eta herriko jauntxoak direla esan daiteke. Besteak, berriz, zaratatsu eta alproja hutsak dira, oso baldar egiten dute dantzan, mundu guztiari adarra jotzen dihardute, lanbide marjinaletan aritzen dira eta kanpotarren itxura daukate. Gorriek dantzetan hartzen dute parte, batez ere, eta beltzek "funtzioetan".

GORRIAK

Txerreroa: Kale-garbitzailea, lumaz egindako erratza eskutan daramala.

Gathusaina: Sorgin artzaziak eskutan dituala.

Zamaltzaina: Zaldi itxurako armazoi baten gainean.

Kantinierra: Frantses armadako arropez jantzirik; garai bateko emakume ijitoaren ordez jarritakoa da.

Entseinaria: Bandera eramaten duena.

Kherestuak: Zikiratzaile edo kapadoreak; bere ofiziko tresnez.

Kukuileruak: Mozorro dantzariak.

Jauna eta Anderea: Herriko handikiak.

Laboraria eta Etxekan-

derea: Baserritarrak.

Hauetaz aparte baziren aintzina beste pertsonaia batzuk ere: **Hartza**, **Lore-saltzaileak**, **Sapurrak**, etab., baina azken aldi honetan ez dira azaltzen gehienetan.

BELTZAK

Kauterak: Kaldereroak; nagusia, langilea eta ikaslea.

Txorrotxak: Txorroskileroak; nagusia eta langileak.

Buhameak: Ijitoak; jauna bere taldearekin.

Medezia: Medikua.

Horiekin batera, **Botikarioa**, **Tximini-garbitzaileak**, **Eskekoak**, **Obispoa**, etab., noizean behin ateratu ohi dira. **Zamaltzain beltza**, **Txerrero beltza** eta **horrelakoak** ere ikusten dira batzutan.

MASKARADAREN EGITURA

Maskaradak ia beti zati aski jakinak izaten ditu. Inoiz zerbait inprobisatzen bada ere, eskema finkatu samar bati jarraitzen zaio:

1.- **Barrikadaren haustea.** Dantza baten bidez maskarada eman behar den herria hartu egiten dela adierazi nahi da.

2.- **Herriko handiki eta jauntxoei bisita.** Dantza eginaz eta bidetan eskean ari direla.

3.- **Branlia.** Dantza luze, dotore, aberats eta konplikatu



samarra Jauna eta Laboraria-
ren omenetan. Antzezikun
txiki batzuk ere egiten dira
zati honetan.

4.- **Funtzioak.** Eszena
komikoak dira. Beltzak dira
hemen artistak eta gorriek ez
dute ia parterik hartzen. Hau
da, dudarik gabe, maskara-
daren parterik alai eta barre-
garriena.

FUNTZIOAK

Maskaradetan **Funtzioak**
deituriko zatitxo hauek dau-
kate antzerkiaren egiturare-
kin kidetasunik handiena.
Imintzioa, mimoa, parodia da
nagusi, baina badira kaute-
rek, buhameek edo txorro-
txek esaten dituzten testu xe-
lebre eta barregarriak ere.
Beltzak ditugu, beraz, an-
tzesle eta hiztun asperkaitzak;
gorriak, aldiz, ia ikusle soilak
dira.

Egun egiten diren funtzi-
oak gehienetan ondorengo
hauek izaten dira:

a.- **Zamaltzainarena,**
Godalet-dantza famatuare-
kin. Basuaren inguruan egi-
ten dena, alegia.

b.- **Marexalena,** hots,
perratzaileena. Hauek Txer-
rroa eta zamaltzaina perra-
tzen dituzte.

d.- **Kherestuena,** hau da,
zikiratzaile edo kapadoreena.
Lehenik Kantinersa irentze-
ko ahaleginak egiten dituzte,
baina azkenik Zamaltzaina
zikiratzen dute, airera bi

“gauza” sinboliko jaurtitzen
dutelarik.

e.- **Txorrotxena.** Jauna-
ren ezpata zorroztea da beren
eginkizuna. Gathusaina eta
Zamaltzaina izaten dira gi-
dari, baina gero Pitxu izeneko
kauterak ere parte hartzen du
sarritan.

f.- **Buhameena.** Ijitoak
bakarrak aritzen dira zarataka
eta iskanbila batean, Bara-
txugaitz buhameen buruza-
giak istoria “zoro” bat konta-
tzen duen bitartean.

g.- **Kauterena.** Hau iza-
ten da, buhameen funtzioa-
rekin batera, agerraldirik al-
drebes eta komikoena. Kau-
teren zeregina Jaunaren per-
tza konpontzea izaten da;
baina hartarako mila gorabe-
hera, burruka, eta xelegeke-
ria egiten dituzte. Halako ba-
tean, burrukaren ondorioz,
Pitxu “hil” egiten da. Orduan
medikuak, operazio beldur-
garri baten ondoren, Pitxu
berpiztu egiten du eta honela
amaitzen da funtzioen zatia.

Aintzina ba omen ziren
beste funtzio batzuk ere:
Hartz, arkume eta artzaiare-
na, adibidez, edo eta Eska-
leena nahiz Zamaltzain bel-
tzena; baina, dirudenez, as-
palditxo galdu ziren.

Jaialdi guztiaren akabera
gisa, Azken dantza izaten da.
Dantza honetan maskarade-
tako kide guztiek eze-
zik, bestelako herritarrek ere
parte hartzen dute.

Jerardo Elortza

Gu hantxe egon ginen

Egin berri dugu, hilabete honen hasieran, Iparraldera-
ko bi eguneko bidaia: Baiona, Donibane Garazi, Bidarrai,
Maule eta Atharratze ezagutzeko aukera eduki dugu. Euskal
Herriko kulturaren ospakizun bitxienetarikoa diren Zube-
roako Maskaradak ikusteko era ere izan dugu.

Otsailaren 3an ospatu ziren aurtengo maskaradak
Atharratzen. Guk gaua Behe-Nafarroako Bidarrain pasa
genuen: afaria prestatu, herria ezagutu, afaldu, izan ziren
gure eginkizuntxoak Maskarada egunaren bezperan, eta
konturatu barik gau-erdia ondo pasata zegoen oheratzea
oroitu zitzaigunerako, ezin bait ginen juerga egin gabe
egon.

Igande goizean nahiko maskaratuak geunden geu inora
mugitu gabe, baina Zuberoara joan behar ginela eta bizkor
ibili ginen dena autobusera eramaten.

Ordu eta laurdeneko bidaiaren ondoren heldu ginen
Atharratzera. Pirinioak hurbil eta elurrez gainezka ikus
zitezkeen. Dekoratu ezin hobea plazara iristean hasia
aurkitu genuen Maskaradarentzat. Ez ginen Hegoaldeko
bakarrak: Oñatikoak eta Portugaletekoak autobusetan eto-
rriak, eta kotxez joandako bergarar banaka batzuk ere han
zeuden.

Euskal Herriko ihauterien nortasuna nabari geneza-
keen hura ikusita. Maskaradak oso herrikoiak dira. Bi talde
bereizten dira Maskaradetan: Batzu Gorriak, oso txukun
jantzita eta zintzo-zintzo zeuden; Beltzak, ostera, narras
eta zikin, beti jolasteko eta gaiztakeriak egiteko gogoarekin.

Gorriek eginiko dantzak izugarri politak eta ederrak
izan ziren, dantzarien arintasunagatik ia-ia balleta zirudien.

Baina, dena-den, guri beltzak gehiago gustatu zitzaiz-
kigun, beti saltoka eta irrifarrea ezpainetan zutelako. Eta
beltzen artean Pitxu izeneko pertsonaia barregarri eta
atsegina egin zitzaigun. Jende guztiari barrezka, gutxien
espero zen lekuetan agertzen zen. Maskaradaren azken
aldera hil egin zen eta bere lagunak ahalegin guztiak egin
zituzten berpizteko, operatu ere egin zuten, tripa, sagu eta
zikinkerri pilo bat atereaz eta jendartera botatzen zutelarik.
Ahalegin guztiak egin ondoren ardoak berpiztu zuen Pitxu
eta denak poztu ziren taldekide nagienaren berpizkundeaz.

Oso festa bitxia iruditu zitzaigun, pena bakarra guztia
ezin izan genuela ulertu izan zen, ohitu barik gaude eta
hango euskara entzuten; dena dela, lehen aldiz gaskoinera
entzuteko aukera ere izan genuen. Han pasa genituen
orduak gogoan ekarri ditugu, etxetik ez hain urrutia eman-
kizun ederra ikusi genuelako.

Orain urte bete itxaron behar berriz Maskaradak ikus-
teko, baina Zuberoara itzultzeko... bihar bertan ahal balitz!!

**Mariaren Lagundia Ikastolako Batxilergo
Orokorreko (REM) 1. mallako ikasleak**

Euskalduna Taberna

OSINTXU

Kiñu

ARGAZKINDENDA

ARGAZKILARIAK

**Martxotik aurrera
Barrenkale 35ean**

Tfnoa: 76 58 05
BERGARA



ETXE- -AUNDI

Negoio bazkariak
E z k o n t z a k
B a n k e t e a k

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Gustoko al dituzu Bergaran antolatzen diren antzerki emanaldiak ?



Belen Txintxurreta
35 urte

Ondo daudela uste dut, nahiz eta gehienetan joaten ez naizen. Bi ume eukita, zaila da denbora topatzea.



Aitor Inza
17 urte

Ondo daudela uste dut. Noizean behin joaten naiz.



Joseba Lazpiur
19 urte

Ondo daude. Ni antzerkigintzan ibili nintzen gainera, eta oso gustokoa dut mundu hori. Beharbada, emanaldi gehiago antolatu beharko lirateke.



Esther Casero
16 urte.

Ondo daude. Batzuetara joaten naiz, denetara ez. Emanaldiak merkeagoak izan beharko lirateke.

GOIERRI

AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Enparantza, 5
BERGARA

Tfnoa: 76 41 50

TOKI-EDER

Taberna

**Pintxoak eta
eguneko bazkariak**

Artzamendi Tfnoa: 76 51 84 BERGARA



ETXEPARE - BILINTX LIBURUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Udalarekin izan beharreko hartu-emanak euskaraz

Joan zen astelehen zortzi, Bergarako Udalak euskara bultzatzeko erabaki inportante bat hartu zuen: 16 urtez gorako herritar euskaldun guztiei galdetuko zaie ea Udalarekin izan beharreko harremanak euskaraz izatea nahi duten. Ez da Bergara, halako erabaki bat hartu duen lehenengo herria. Iaz Arrasaten 70 elkarte, enpresa, erakunde eta pertsona partikularrek beren arteko harreman guztiak euskaraz izateko konpromisua hartu zuten. Eta Arrasaten baino lehenago, orain dela 3-4 urte, Andoainen, orain Bergaran hartu den erabaki bera hartu zen.



MABER

GIMNASIA-ETXEA

KULTURISMOA

**MANTENIMENDU GIMNASIA ETA ZUZENKETAZKOA
EDOZEIN KIROL EGITEKO PISU-SISTEMA EGOKIAK
SASOIAN EGOTEKO BEHAR DITUZUN MAKINA ETA PISU MOTA GUZTIAK
URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!**

KOLDO ELIZALDE, 16 BEHEA.

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA

Agurt'ardi, Bergara:
Nire Arrasateko esperimentzialtik bultzadaxo

bat eman nahian edo, azkenean animatu naiz zuen herriko astekarian idaztera, Bergarako Udalak proposatu nahi dizuen euskara bultzatzeko plan bereziari buruz.

Joan zen urtean gure herrian, berrogeitabederatzi erakunde eta profesionalak beren arteko harremanak euskara hutsez egitea erabaki zuten. Tartean ziren Udala, Lagun-Aro, Lankide Aurrezkoa, parrokia, jai batzordeak, eskolak eta hainbat abokatu, mediku, etab.

Ni neu berrogeitabederatzi erakunde eta profesionalen harremanen gainbegiralea, aholkularia edo nahi duzuen nauze.

Lehenengo momentuan, zenbaitek ezinezko pausua zela pentsatu bazuen ere, denboraren joanak arrazoia kendu die hori uste zutenei, zorionez. Ni nagoen lekutik animatu baino ezin zaituztet egin. Bergararrok guk baino errazago duzue, eta gu bagabiltza. Animo eta aurrera!

Xabier Ozaeta
(Arrasateko euskararen aldeko hitzarmenaren gainbegiralea)

Euskaldun askok ahalegin txiki bat

Beren bizi guztia euskararen alde lanean eman duen jenderik izan da Euskal Herrian eta baita Bergaran bertan ere. Behar beharrezko ditu horiek euskarak. Baina horien lan itzela bezain beharrezko da halako mailara iristen ez garenok, herritar arruntok, euskara bultzatzeko konpromisu txiki bat hartzea. Izan ere, dozena baten edo biren edo hiruren esfortzu haundiekin baino indar gehiago egin daiteke dozena bat milaren ahalegin txikiak elkartuta. Eta Bergaran, euskaldunok, izan gara ia dozena bat mila.

Bergarako euskaldunok Udalarekin izan beharreko harremanak euskaraz izateko konpromisua hartzeak ahalegin txiki bat eskatzen dio gutariko bakoitzari eta ahalegin txiki horiek batzen baditugu, ikaragarriko bultzada emango diogu euskarari.

□ **Umeak ikastolara bidaltzea ez da nahikoa, nagusiek ere, ahal duten neurrian, konpromisua hartu behar dute.**

Izerdi eta neke asko kostata sartu zen garai batean euskara eskola-munduan. Hala ere, euskararen etorkizuna ezin da eskolaren esku bakarrik utzi. Neska-mutikoek, koskortu ahala, erdarara jotzen dute gazte eta helduen ohiturei jarraituaz. Hori ebitatzeko modu bakarra gazte eta helduek, euskara erabiltzeko konpromisua hartzea da. Bakoitzak ahal duen neurrian, baina hizkuntza erabili egin behar da.

Euskararen alde gaudela esan eta erdaraz egiteak ez du balio.

□ **Urtean Udaletxetik jasotzen diren 6-8 idatziak euskaraz jasotzeko**

konpromisua edozein euskaldunek har dezake. Gainera, Udala idatziok ahalik eta euskara errazenean jartzen ahaleginduko da.

Normalean behintzat, gutxi jasoko dute urtean 6-8 idazki baino gehiago Udaletxetik. Euskaraz irakurtzeko ohiturarik ez duenarentzat ere, ez da, bada, egin ezinezkorik eskatzen: urtean dozenaldi bat bider ahalegintxo bat egitea. Horretaz gain, Udalak aparteko ahalegin bat egingo du herritarrei bidaliko dien idatziak euskara errazean bidaltzen.

□ **Onena, ahal duten herritar guztiek Udaletxera bidaltzen dituzten idatziak euskaraz bidaltzea litzateke.**

Egokiena, dudarik gabe,

bai Udaletxetik jasotzen ditugun idazkiak eta bai geuk bertara bidaltzen ditugunak euskaraz egitea litzateke. Eta hori egiten saiatu beharko litzateke euskaraz idazteko gai diren euskaldun guztiak. Gaur egunean gainera, normalean ez da idatzi luze nahaspilatsurik bidaltzen Udaletxera. Udaletxetan bertan dauden inpreso batzuk betetzea nahiko izaten da eta, jeneralean, ez dira konplikatuegiak izaten.

□ **Hala ere, euskaraz idazteko gauza izan ez arren, ulertzen baduzu, laguntza izugarria eman dezakezu jasotzen dituzun eskutitz eta oharra euskaraz jaso nahi dituzula esanaz.**

Jakin badakigu, oraindik ere, euskaldun gehienok ikasketak erdaraz egin ditu-

MEMESA


IRIMO

SKF

photon

Arrasate 79 42 22

Artxabaleta



gula. Hori dela eta, herritar askok ez daki euskaraz ondo idazten.

Zu ere, beharbada, ez zara ausartuko Udaletxera idazkiren bat bidali edo bertan impresoren bat bete bahar izanez gero, horiek euskaraz idazten.

Baina, seguruena, ez duzu noizean behin Udaletxetik datorren idazki bat ulertu ezinik izango.

Ahalegin txikitxo bat egitea nahiko izango zenuke eta, gainera, apurka-apurka ohitura hartzen joango zinateke. Eta zure ahalegintxo horri esker Udalak euskaraz ere funtzionatu ahal izango luke.

Estepan Plazaola

(Bergarako Udaleko Euskara Dinamizatzailea)

✓ **Bergarako zenbait erakundek kaleratzen duten idatzia, herriko Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarren errolda egiteari buruzkoa**

“Idazki hau sinatzen dugunok aitortzen dugu erantzukizun berezia dugula euskararen normalkuntzan. Gurea da, nahiz eta ez gurea bakarrik, Bergarako ume, gazte eta helduek euskara ondo eta egoki ikastearen ardura. Hala ere, hizkuntza ikastea ez da nahiko; ezinbesteko da dakitenek erabiltzea. Alde horretatik, txalagarria iruditzen zaigu, eta euskararen erabilpena bultzatzeko beharrezkoa, Udalarekin harremanak euskaraz izan nahi dituztenen errolda egitea.

Horregatik, Bergarako Udalaren iniziatiba bultzatu eta herriko euskaldunak animatzen ditugu aukera hori egin dezaten, uste bait dugu euskara bultzatzeko biderik egokiena dakitenak erabiltzeko eta ez dakitenak ikasteko konpromisua hartzea dela”.

□ Iz: San Martin Herri-ikastetxea, Mariaren Lagundia Ikastola, Aranzadi Ikastola, Lanbide Heziketako Institutua, Batxilergo Institutua, Bergarako AEK, Udal Euskaltegia eta JARDUN Elkarte.



Udalareki-
ko harremanak euskara hutsean nahi zituztenen zentsua Andoainen egin zenean,


herritarren artean sortu zen kezkarik haundiena izan zen gaurko euskara “berri” hori ulertzeko gai izango ote ziren. Hala ere, 16 urte-rik gorako andoaindar euskaldunen % 80ak (4.187 pertsona) zentsuan sartu zen, eta, noski, hauetako asko eta asko alfabetatu gabeak eta Udalarekin euskaraz aritzeko ohiturarik ez zutenak ziren.

Egoera hau kontutan izanik, Udalak ahalegin handi bat egin zuen sarritan gaztekeraz ere zailak diren idatzia ahali eta errezen ulertzeko moduan ematen. Eta ziur naiz, bi urte igaro ondoren, ez duela damurik hautapen hau egin zuenak ez bait du, bakarren batek salbu, inork atzera egin.

Hizkuntza gure gizartean zabaltzeko ez da nahikoa jakin badakigula esatea, erabili egin behar dugu, ezinbestekoa da, ezinbestekoa den bezala ez dakitenek ikastea. Lege eta dekretuek ez dute ezertarako balio, gure eskubideari uko eginez, ez badugu erabiltzen. Beraz, hor duzue aukera, etxe eta lagunartetik kanpora zabaltzeko.

Pello Iturrioz

(Andoaingo Udaleko Euskara zerbitzuko)



BERGARA BOLTSAK

- Bidaia-boltsak, kirol-boltsak eta bestelakoak egiten dira, narruzkoak, nylonezkoak, lonazkoak, etab..
- Denetariko konfekzio industrialia
- Zuzeneko salmenta publikoa

Santalaitz 1,

Tfnoa: 76 57 69

Faxa: (943) 76 55 66

BERGARA

Patxi Berraondo



Euxebio Txintxurreta




Juste Amenabar



Elisabete Arana



Fermin Korkostegi




“Legeek aitortzen dizkiguten eskubideak erabiliz, Udalarekin izan beharreko harremanak euskaraz izatea nahi dugu”


Pedro Egaña



Juanje Amasorrain



Luis Mari Elorza



Eba Alberdi



Itigo Gallastegi



Aitziber Aretxaga



Jabier Ugarte



**LASA
JATETXEA**

Bkurutzeta 36, Tfnoa: 76 10 55 - 76 20 29 BERGARA

AGOITZ

TAPIZDENDA

San Lorentzo 25 Tfnoa: 76 11 58
BERGARA



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA



ETXEA

Gertatutako jangaiaik eta erregimenekoak

Zurradero 2, Tfnoa: 76 58 83



Igande eguerdian, Santa Marina elizan, bertako koruan urte mordo eman duten **Natalio Juaristi eta Juanito Larrañagari omenaldi beroa eskaini zitzaien**. Natalio, eskumatik hasita aurreko ilaran bigarren dagoena duzue, ata argazkiaren erdian dagoena Juanito da.

Bi bergarar hauek txikitari hasi ziren kantatzen; 9-10 urtekin solfeo klaseak emateari ekin, gustatu, eta koruan sartu ziren tiple bezala.

Gaur egun 78 urte dituzten arren, hor segitzen dute igandero, hutsik egin gabe. Eta ez dirudi euren zaletasuna bertan behera uzteko asmoa dutenik. Nataliok aitortu zigunez, *"lurperatu arte hemen jarraituko dut"*; Juanitori, berriz, zera entzun genion: *"Dagoeneko ez daukat ahotsa lehen bezain ondo, baina gogo berdinarekin jarraitzen dut"*.

Aste bete pasatxo darama lanean **Ignazio Azkarraga-Urizar, udaltzain berriak**.

Duela 29 urte jaio zen Elorrixon, eta Arrasaten bizi da. Hamar urte eman ditu *Criadero Vascongado de Codornices* enpresan lanean.

Udaltzain plaza eskuratu badu ere, buru-belarri dihardu Zuzenbide ikasketak jarraitzen. Aurten, hain zuzen, bigarren maila egiten ari da.



Zertan dihardute ba?

DAMASO GALLASTEGI

Sekulako arrakasta lortu zuen joan den astean kaleratutako portadak.



Eta argazkiaren egilea, 33 urte dituen eta ikastolako irakaslea den Damaso Gallastegi dugu. Ez zen inolako trukajerik egon. Tamamrasset (Argelia) inguruko benetako *tuareg* bat agertzen zen gure astekaria irakurzen.

PABLO IRIZAR


DVk Gipuzkoako kirolarionenak izendatzeko antolatutako sariketan,



Pablo 2. izan genuen automobilismo sailean, 871 irakurleren botuei esker.

AITOR ZABALETA

Goian aipatutako sariketan, 3. izan genuen Irizarren atzetik. Aitorrek 187 botu lortu zituen.



J.M. Irizar Leanizbarrutia
Estomatologoa
Hagin-klinika

Matxiategi 18, Behea Ezk. Tfnoa: 76 5657 BERGARA

ERREKI

ERRETEGIA

Txitxarro eta saiheski jana astebukaeretan

Fraiskozuri Enparantza Tfnoa: 76 38 51 BERGARA

Hau dok barreguria

Sartzen da gizon bat tabernara eta edaria eskatzen du. Han zegoen bezero batek, belarrira hurbildurik, esaten dio:

- Hori da tximino aurpegia duzuna. Baina margotuta ere ezin berdinagoa.

Gure gizon honek ez zion jaramonik egin, baina oso kezkatu atera zen taberna zulotik. Heldu da bere lagun on batengana eta adierazi dio zer gertatu zion tabernan. Konfiantzakoa zuen lagun harek esaten dio:

- Nik ez diat sekula aipatu, baina egia duk.

Gero eta estuago gizona; hurrengo ikustaldia zoologikora egitea erabakitzen du. Hango atezainari galdetzen dio:

- Non dago tximinoaren kaiola?

- Egunero esaten ari nauk ez irteteko nolana hilerera, gero ez duzelako jakiten nola bihurtu.

Lehen kezkatu bazen

zaparrada honek ez zuen asko konponduko.

Zoroetxea aurrez-aurre zuelarik bizi zen familia batek loritoa zeukan. Egun baten ihes egiten diete eta zoroetxeko horma gainean gelditu.

Etxekoandrea berehala zegoen zuzendariaren atean. Esan zion zer gertatzen zen, eta nahi lukeela loritoa bereganatzea.

Zoroetxeko zuzendariak deitu zion han zituen bi "apopilori" esanez:

- Ekar ezazue eskailera eta batek eutsi bitartean besteak igo eta hartu loritoa.

Igo zenak begiratu zion ongi txoriari, behetik gora eta goitik behera, alde guztietatik. Esku hutsik heldu zen zuzendariaren aurrera.

Zuzendariak errieta eginez:

- Zergatik ez duzu ekarri loritoa?

- Heltzeke zegoelako, koino!

Antonio Urzelai

Bergarari buruzko aipamenak (2): Sor Juana Inés de la Cruz

Nahiz eta Bergararik oso urruti sortu eta bizi izan, jatorriari uko egin ez zion emakume harrigarria izan genuen ondorengo bertsoa ondu zuena:

"Nadie el vascuence mormure
Que juras a Dios eterno,
Que aquesta es la misma lengua
cortada de mis abuelos".

Idazle famatu hau "Sor Juana Inés de la Cruz" genuen edo, nahiago baduzue, Juana de Asbaje (1651-1695). Mexico aldera joandako Pedro Manuel Asbaje bergararraren alaba hau 1651n munduratu zen San Miguel de Nepantla-n. Bere garaiko emakumerik jakintsuenetarikoa, poeta eta prosalari bikaina, gaztetandik entzute handia bereganatu zuen. Bertso-tan ari zenean, gaztelarekin beste hizkuntza batzuk ere tartekatzen zituen inoiz. Hona hemen Sor Juanak euskaraz eta gaztelera, nahasirik, moldatutako poema zati bat.

"Señora Andre Maria,
Porque a los cielos te vas?
y en tu casa Aranzazu
No quieres estar?
Ay que se va. Galdu naiz,
Nere bizi guziko galdu naiz.
Aquí en Vizcaya te quedas,
No te vas, nere biotza;
y si te vas, vamos todos.
Bagoaz.
Guazen galanta contigo,
guazen, nere laztana,
Que al cielo toda Vizcaya
Has de entrar."

Jerardo Elortza

ayastury

JANTZIDENDA

BARRENKALE, 30
Tfnoa: 76 22 68
BERGARA



LONBIDE

OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA

ETXAGI

JATETXEA

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8 Tfnoa: 76 53 12 BERGARA



Luis Fernandez

Kirola eta osasuna eskutik doazelako

□ Luis Fernandezek 31 urte ditu. Aranzadi Ikastolan egiten du lan, kirol hezitzaile moduan.

"INEF-era joaten saiatu nintzen, baina ez nuen lortu, oztopo asko aurkitu nituen. Orduan beste bide bat aukeratu nuen; atletismo entrenatzaile titulua atera nuen, eta ikastaro mordoska bat egin ditut, bai Barcelonan, bai Madrilen..."

□ Atletismoaren munduan egin duen lanagatik ezatuko duzue seguruenik. Antxitxiketaren zaletu amorratua.

"Hamaika urterekin hasi nintzen Bergaran. Club Deportivoan jardun nuen 18 urte bete arte. Gero Donostiara jo-

an nintzen, Atletico SS Talde-
ra. Ez nengoen gustora, or-
dea, eta independente moduan
ekin nion. Deportivotik zirika-
tu ninduten berriro, etortzeko
eta etortzeko, eta hona itzuli
nintzen; baina betiko arazoa
aurkitu nuen, hau da, azpiegi-
tura makala. Dena guk egin
behar genuen, entrenamentu-
ak prestatu, delegatu lanak,
probak antolatu...erre egin
nintzen, eta duela bost urte
Arrasate Atletiko Taldera jo
nuen. Ordutik han ibili naiz".

□ Gaur egun mediodondoko probetan jarduten du Lulsek gehienbat.

"Hasi, 100 eta 200 metro-
etan hasi nintzen. Baina urte-
ak ez dira alferrik pasatzen.
Denboraren poderioz distan-

tzia luzeagoetara jotzen da,
proba motzetarako beharrez-
koa den txispa galtzen delako.
Eta hor nabil gaur egun, 1.000
eta 10.000 metro artean jo eta
ke".

□ Datorren urtean, antza,
uko egingo dio
kompetizioaren munduari.

"Seguruenik datorren
denboraldian bertanbehera
utziko dut kompetizioaren
mundua. Nere kasa jarraituko
dut kirola egiten, baina txapel-
ketarik txapelketa ibiltzeak
dakarren tenisioa alde batera
utzita".

□ Gustora gelditu zen
Ilgandean Euskadiko Kross
Txapelketan
egindakoarekin.

"Beno, 42. izan nintzen.
Hobeto egin nezakeen, baina
ez dago gaizki. Pena taldeka
ez genuela puntuatu. Lau lagun
joan ginen Arrasate Atletiko
Taldetik, baina batek ez zuen
bukatu, eta puntuatzeko behar-
rezkoa genuen laurok proba
amaitzea. Bestalde, zera aipa-
tuko nuke, berrehun eta lau-
gei korrikalarik hartu genuela
parte; ez da kopuru makala!"

□ Jose Antonio Gay,
Ignazio Malzblide... eta
Antonio Merlino!

"Gay eta Maizbide arra-
satearrek maila ederra dute
benetan. Atletismoan, puntako
gizonak ditugu, Estatuko one-
netarikoak, eta txalotzekoa da
hori zer egoeratan entrenatzen
duten kontutan hartuta. Horiez
gain, Antonio Merino antzuo-
larra burutzen ari den denbo-
raldia gorai patuko nuke; ze
ondo dabilen!"

□ Atletismoa, eta
orohar kirolaren
mundua bultzatzeko
gauza asko aldatu
beharra dago.

"Nik ez dut ulertzen.
Kirola hain da ona osasu-
narentzako, eta gure gaz-
teak taberna edota droga-
ren mundutik ateratzeko...
Baina ez zaio merezi
duen garrantzia ematen.
Gure instalazioak lotsa-
garriak dira, galeriari be-
gira egiten dituzte, eta gero
hor konpon!"

Zoruak hondatuta,
saski edo porteriak hau-
tsita, dutxa hotzak eta ba-
tere higienerik gabeko-
ak... hori dugu eguneroko
errealitatea!

Eguraldi txarrarekin,
gainera, atzera egiten du
toki horiek ikustea!

Ez dira kirol plangintza
egokiak egiten, eta jende
prestatu gehiago behar
litzateke kirola egin nahi
duen edonori laguntzeko,
behar den moduan lagun-
tzeko.

Baina tira, aspertu ere
egiten zara borroka ho-
rretan. Aprobetxategi asko
aurkitzen duzu parean,
kirolak bost inporta dion
jendea!

Galeriara, galeriara
begira egiten dira gauzak;
eta lastima da, kirola eta
osasuna eskutik helduta
doazelako".

IGERILEKUKO
TABERNA
EGUNEKO MENUA
AURREZ ESKATUTAKO
AFARIAK

Tfnoa: 76 53 55



Raixabal
Gozotegia

Artekale 9, Tfnoa: 76 11 83

Bidekurutzeta 20 / 22 Tfnoa: 76 12 19



Hara hor agura garratzak, Zubixurreko Ibarra taberna zaharrean. Bik bakarrik dituzte kartak eskuetan baina ezin esan beste bostak ere jokuan sartuta ez daudenik. Ez dakigu zer jokatzzen zuten, seguruen denbora pasatu alde jardungo zuten.

Erretratua orain 30 urte inguru ateratakoa omen da. Erretratugilea sartu eta inor konturatu gabe klik, fotografia. Gero Irunen sariketa batetan 1. saria irabazita dago eta Bergarako jubilaueetako sariketa batetan 3.a.

Bertan ageri direnak hauek dira:

Zutik: Patxi Aundi eta Silbestre Elkoro.

Jokuan dabilzanak: Floren Barrutia, ezkerrekoa, eta Urbina eskumakoa.

Jarrita begira daudenak: Ezkerrean Marzelino Loizaga eta eskuman aiuntamentuan barrendero egondako bat (ez dakigu izenik) eta Belengua tabernakoa.

Estepan Plazaola

Berriemailea: Bitorlo Elkoro

"ORTZI"

ERRETEGIA

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

A. ZANGITU

Paper pintatuak-pinturak

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



**ETXEBIZITZA**

- Pisu ederra salgai Irizar pasealekuan. Deitu 761708 Tfnoa.
- Pisua salgai edo alokairuan. Polita eta amueblatua. Deitu 762916 Tfno.ra, 21etatik aurrera
- Amueblatutako pisu bat alkitatzen da denboraldi baterako. Tfnoa: 861555, edo 862301.
- Pisua behar dut alkitlerrean. Tfnoa: 764255.
- Gela independente bat alokatzen da. 762112.
- Etxe handia erosi edo alokatu nahi dugu. Markea bada, hobeto. 764507.
- Baserria salgai Berga-

ratik 3 km.ra. 770081, 10etatik letara eta 6etatik 8etara.

- Pisua salgai Koldo Elizalden. Tfnoa: 765823
- Lokal komertziala alkitatzen da bolun. Tfnoa: 763797.
- Pisua salgai Olan, konpondua eta amueblatua. Modu onean. 761669.
- Soto eta garajeak salgai Martokuan. Tamainu ezberdinetakoak. 761078.
- Andereño batek pisu amueblatua behar du urte gutzirako. Erdikaldean badago, hobe. Deitu gaez 760371 Tfno.ra.
- Pisua salgai; garaje eta guzti. 763911.
- Baserria alokatu nahi

dugu Bergaran.763431.

- Pisu edo buhardilla hartuko genuke alokairuan. 764735

LANA

- 16 urteko neska eskaldunak umeak zainduko lituzke 3retatik 9ak arte. Tfnoa: 764061.
- Emakume bat eskaintzen da lanerako. 765403.

DENETARIK

- Ihauteri asteartean Poligonoko Ikastola inguruan argazki kamara bat galdu nuen. Zerbait badakizu, deitu mesedez telefono honetara: 763270.

• Pintura klaseak. Tfnoa: 764014 edo 763493

- Ikasi josten zure astialdian. 762858
- 20,50 m²ko garajea alkitatzen da Burdifatzen. Egin berria. 764003
- 55 m²ko lokala alkitatzen da. 765859, gaueko 9etatik aurrera.
- IPUIN dendaren albo-ko lokala alokatzen da. Galdetu Ipuin-en.

SALDU-EROSI

- Karrerako bizikleta ia berria salgai. Kuadroa Mercier, pieza gehienak Zeus. Prezio ona. 763269

Hildakoak

Jon Ander Osinalde Suinaga.

30 urte. Otsailak 23an.

Ignazio Arenaza Irazabal

51 urte. Otsailak 26an.

Juan Fernandez Aliaga

74 urte. Otsailak 27an.



Ignazio Arenaza Irazabal

Doluminik sentikorrenak familia osoari



Bergaran, otsailaren 26an

Zuhaitzi

AFARIAK: Asteburuetan

Aste barruan enkarguz

Espaloia 6 Tfnoa: 76 59 22 BERGARA

LETE TOLDOAK

Kataide Pol/Ind. 14. Pab.

Tfnoa: 79 23 83 ARRASATE

BERGARA Tfnoa: 76 12 24

IURRETA Tfnoa: (94) 6 81 76 19

GURIA

TABERNA

Bidekurutzeta 5,

Tfnoa: 76 20 34

Legeek aitortzen dizkidaten eskubideak erabiliz, Udalarekin izan beharreko harremanak euskaraz izatea nahi dut.

Bergara, 1991, otsaila.

Sinadura

Izena:

Helbidea:

**H A U X E
A U K E R A !**

Begarako Udala



Euskara Batzordea